



BARREN

TOKIKOM

Erabakitzeke ordua



HERRI GALDEKETA 2017
CONSULTA POPULAR 2017

Ate Irekiak Maiatzak 12



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, LANBIDE ETORRIETAKO
ENBIZIOTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA DE EMPLEO Y FORMACIÓN



ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

Eta eskaintza partzalean, arratsaldean...

- Erizaintzaren laguntza
- Soldadura eta galdaragintza

GOI MAILA

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal eraikuntzak

Eta eskaintza partzalean, arratsaldean...

- Automozioa
- Gizarteratzea



ANA ALBERDI



“Ba al zenekien 90eko hamarkadara arte jaka bakeroa gizonezkoentzat zela bakarrik?”

Kaixo, Eneko! Maitzean sartu gara dagoeneko, eta eguraldia ere hasi da aldatzen. Neguko berokiak gordetzea gehiegi motibatzea baldin bada ere (batek daki bihar zein eguraldi egingo duen), larruzko eta jaka bakeroak armairuko errege/erreginak izatera pasatu dira dagoeneko. Eta gaur, bigarren hauetan geratuko naiz.

Izan ere, Eneko, ba al zenekien, 90eko hamarkadara arte jaka bakeroa gizonezkoentzat bakarrik pentsatutako jantzia zela? Nork esango zuen halakorik emakumeen artean hain modan dagoen arropa izanik!.

Ba bai, halaxe da. 90eko hamarkadan *unisex* jantzia bihurtu zenetik, eboluzio handia izan du jaka bakeroak. *Over-size* itxuratik neurrira egokitutako formara pasatu zen, orain, berri ere, *oversize* itxurara bueltatzeko. Forma aldaketa horri

tatxet txikiek eta bordatuek jarraitu zieten.

Gaur egun, marrazki handi, koloretsu eta originalekin, mezuekin edo musika talde ezberdinetako logoekin aurkitu ditzakegu jaka bakeroak. Eta ez hori bakarrik, azken denboraldietan pertsonalizazioa izan da berrikuntza handiena; zure izena, gustuko duzun marrazkia... bakarra izango den jaka sortzea izan da helburu nagusia.

Aurtengo denboraldian (eta beste urte batez) berrietea tokatu zaio berri, eta oraingoan ez dira ez tatxetak ez bordatuak izan. Oraingoan jaka eramateko modua aldatu da: sorbaldak bistan utziz.

Ni jaka bakeroaren oso fan-a naiz... baina, jarraituko al dut moda berri hau? Eta zuk, Eneko, erakutsiko dituzu sorbaldak denboraldi honetan?



ENEKO ITURBE

“AEBetako meategietako langileek erabiltzen zuten arropetan dauka oinarria denim-ak”

Epa, Ana. Berotasuna nabarmentzen hasi da jada, eta honen seinale da kalean txaketa bakeroa ikusten hastea; ez al duzu uste? Izan ere, negurako pixka bat hotza da, ez badago behintzat ilez forratua...

Egia esan, ni neu txaketa bakeroaren oso fan-a naiz, eta orain, buruari bueltak ematen nabilen honetan, konturatu naiz hainbatean ikusi zaitudala zu ere blogean txaketa bakeroekin: zuri ere arropa hau izugarri gustatzen zaizulakoan nago.

Gaur egun oinarritzkoa den jantzi bihurtu da gure artean, eta zuk ongi azaldu duzun bezalaxe, modu ezberdinetan moldaturik ikusi dugun txaketa da. Baina egia dena zera da: LEVI'S markak diseinaturiko txaketaren inguruan izaten direla beti aldaketa hauek.

Hala eta guztiz ere, jaka honen inguruan sakondu beharrean, materialaren bueltan egin behar dugu hausnarketa:

denim-a indartsu datorren ehuna da, ziur nago! Inoiz baino arropa mota gehiago ikus ditzakegu material honekin landuak, baita look osoak ere.

Aizu, Ana, ba al zenekien denim-a material historikoa dela? Estatu Batuetan urrea ateratzen zuten meategietako langileek erabiltzen zituzten arropetan dauka oinarria, eta gaur egun ere arropa hauek kuttu “xumea” dute. Beraz, denim-az egindako arropak luxuzko look elegantei sentsazio lasaiago bat ematen diela esango nuke. Nire iritziz, oso egokiak izaten dira okasio horietan.

Amaitzeko, zuei guztioi hurrengo aholkua ematea gustatuko litzaidake: argi daukat denim-ak bere alde dibertigarria daukala, eta aitortu beharra dago erraz jantzeko arropa dela aitortu beharra! Beraz, espero dut hurrengoan, Elgoibar naiz Mendaroko kaletan zehar zuetariko batzuk denim-az josirik ikustea!

ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea



Burujabetza linguistikoa

Gaian dugu Gure Esku Dagok maitatzaren 7rako antolatutako herri galdeketa, eta ezinbestekoa deritzot hautestontzietan geure iritzia sartu aurretik hausnarketa sakon bat egiteari. Hamaika ikuspuntutatik heldu dezakegu geure herriaren etorkizunaren inguruan dugun erabakitze eskubidea, baita eskubide hori plazaratzeak duen garrantzia ere: alderdi sozialetik, politikitik, ekonomikitik, kulturaletik... baita burujabetza linguistikotik ere.

Ez dira berriak frantziar eta espainiar

estatuek euskarari jarritako mugak, eta ez da nire helburua bi estatuek egindako politika linguistikoko zentralista eta zapaltzaileak diskurtsoaren erdigunean jartzea.

Garrantzitsua da, ordea, politika arrotz horiek geure hizkuntzarengan izan duten eragina abiapuntu gisa markatzea. Izan ere, alderdi linguistikoa ere botere-harremant batzuen menpe gaude, eta noski, euskal hiztuna ez da botereduna, ezta euskal hiztun komunitatea ere. Beraz, euskal munduak bere burua sortuko badu, guk geuk hizkuntza komunitate gisa geure burua sortu behar dugu, eta autonomia behar dugu horretarako, geure burua antolokuntzaz eraiki eta ahalduntzeko.

Argi dago autonomia eta burujabetza hori lortzeko ez dugula estatu bat behar, baina sekulako bultzada litzateke egungo estatus politikoarekin haustea, botere-harremant horiek puskatzea, gure hizkuntza-

ren kaltetan lanean ditugun haiek beharrez euskara babestuko duen hura izatea boterean. Baina proiektu linguistikoa ezin dugu estatu propioa lortzen dugunerako utzi.

Badirudi euskararen egoera duela 50 urte baino hobea denez, horrek euskararen aldeko mugimendua egonkortzea ekarri duela. Botere hegemonikoen aurkako herri mugimenduak izan dira beti euskararen problematika lehen planora ekarri dutenak, hau da behetik gorakoa izan da hizkuntza komunitateak burujabetza linguistikoa alde egin duen lana.

Ondo legoke, beraz, guk, hizkuntza komunitate moduan, gure burua subjektu gisa ikustea, parte-hartze aktiboa duen subjektu kolektibo gisa. Izan ere, erabakitze eskubidea gure esku dagoen moduan, euskara behin eta berriz sortzea eta herri mugimenduetatik estatu mailara eramatea ere gure esku baitago.

“Euskara herri mugimenduetatik estatu mailara eramatea ere gure esku dago”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izaguirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eduñe Izaguirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Berstein **INPRIMATEGIA** Gerutu Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► TXIKI EGUNA, 25EAN EDO 28AN?

San Bartolome jaiak abuztuko azken astean ospatzen dira, eta hasiera hasieratik Txiki Eguna patrioiaren egunaren hurrengo egunean ospatzen da. Egoera hau aldatzen da soilik abuztuaren 25a larunbata izaten denean, hileko azken larunbata izanik Ganadu Feria egiten delako eta Baserritarren eguna izaten delako.

Aurten Udaleko arduradunek Txiki Eguna egunez aldatzea erabaki dute arrazoi desberdinegatik. Euren ustez, abuztuaren 25a ostirala denez, hobe da Gazteen Eguna ospatzea, normalean egun hori ostiralean ospatzen delako.

Gure ustez, azkoz sendotuago dago Txiki Eguna 25ean ospatzea Gazteen Eguna ostiralean ospatzea baino. Horre-

gatik uste dugu ez dela ohitura hori aldatu behar. Egund berezia da, eta elgoibartar guztiok alaitasunez eta gogo handiz ospatzen dugu. Pentsatzen dugu ohituraz eta errotzez abuztuaren 25a Txiki Eguna izan beharko litzatekeela aurten ere, eta beste egunak aldatu. Ostirala Gazteen Eguna ipintzeko erabakiak ez du ohitura izaera.

Gure iritziz, Jai Eguneako egutegia honako hau izan daiteke:

- 23, asteazkena: San Bartolome Bezpera
- 24, osteguna: San Bartolome Eguna
- 25, ostirala: Txiki Eguna
- 26, larunbata: Baserritarren Eguna
- 27, igandea: Gazteen Eguna
- 28, astelehena: Jubilatuta eta Umeen Eguna.

Change.org web orrian eskakizun bat dago, <https://www.change.org/p/elgoibarko-udala-2017ko-txiki-eguna-abuztuak-25-abuztuaren-25a-txiki-eguna-mantentzeko>. Ahal Dugu Elgoibar Podemoseetik bat egin dugu eskakizun horrekin eta Udaleko arduradunei eskatzen diegu horren egun seinatuta dena aldatzeko erabakia berriz aztertzeko.

Ahal Dugu – Podemos Elgoibar

Summer intensive

KET, PET, FCE eta CAE

Ingelesko azterketarako prestakuntza berezia.

13-18 urte bitarteko gazteentzat

Uztailaren 3tik 28ra

(batxilergoko ikasleentzat berezia ekainean)

40 orduko ikastaroa.

Goizero 2 ordu.

Taldeak: 6-10 gazte.

Lekua: IMH.

Prezioa: 330 €

Frantseseko eta Alemaneko 40 orduko ikastaroak.

ILS Industry Language Services
Azkue Auzoa 1 (IMH)
Uparitzaga, 12 behea
ELGOIBAR Gipuzkoa
T. 943 744 040 E. ils@ils.es
www.ils.es



Martxan da aurten ere enpresa ideia industrialen lehiaketa



TKgune Fabrikazioa Berrikuntza eta Teknologia Transferentziarako Sarea osatzen duten Lanbide Heziketako Ikastetxeek, tartean IMHk, TKgune Gazteentzako Enpresa Industrialen Ideia Lehiaketa antolatu dute, laugarren urtez, Elgoibarko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Ekintzailetasun industrialak sustatzeko eta etorkizuneko erronkak era arrakastatsuan lantzen lagunduko duen eremua sortzeko helburua dauka lehiaketa honek. Aurreko edizioetan moduan, 35 urtera arteko gazteek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, eta aurtengoan ere, bi sari banatuko dituzte:

1. Enpresa Industrial Onenaren sarituak 2.500 euro jasoko ditu eskudirutan, 40 prestakuntza ordu sustatzailearen beharren arabera, 100 aholkularitza ordu enpresa proiektua garatzeko eta 300 ordu beharrezkoak diren baliabide industrialak erabiltzeko.
2. Euskadiko Lanbide Heziketako ikasle edo ikasle ohiak aurkeztutako enpresa industrial idea onenaren irabazleak 2.000 euro jasoko ditu eskudirutan, 40 prestakuntza ordu sustatzailearen beharren arabera, 50 aholkularitza ordu enpresa proiektua garatzeko eta 100 ordu beharrezkoak diren baliabide industrialak erabiltzeko.

Sariak ez dira metagarriak izango, eta ideia sarituen proiektuak abiatu eta 18 hilabeteren epean egin beharko dira. Sariak udazkenean banatuko dituztela aurreratu dute antolatzaileek IMHko Asmaola eraikinean eskaini duten prentsaurreko agerraldian. Ekainaren 13rako aurkeztu behar dira ideiak lehiaketara. Helbide honetan aurkituko dituzue lehiaketan parte hartzeko oinarriak: <http://www.imh.eus/eu/ekintzaileak/tkgune-ideia-lehiaketa>

Iaz, Mikel Diez La Salle errenteriarrek eta Krystof Kwiatkowski poloniarrek aurkeztutako eOntzia proiektuak irabazi zuen lehiaketa. Hondakinak kudeatzeko sistema inteligente bat aurkeztu zuten. IMHko arduradunek jakinarazi dutenez, iazko irabazleak oraindik ez dira hasi garatzen ideia hori. Aldiz, orain bi urteko edizioa irabazi zuen Mikel Zubieta etxalartarra buru-belarri dabil bere ideia gauzatzeko ahaleginean, IMH-rekin elkarlanean. Bizikleten platerak aldatzeko sistema hobetu lezakeen proiektua aurkeztu zuen Zubietak. Ideia lehiaketaren lehen edizioa Asier Lizarralde elgoibartarrak irabazi zuen, zuhaitzak inauteko makina automatiko aurreratu bat egiteko ideiarekin. IMHko Roberto Altzerrekaren berbetan, poliki, baina aurrera doa ideia gauzatzeko prozesua.

Txillarre baserrira bisita gidatua, maiatzaren 20an

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak Txillarre baserrira bisita gidatua antolatu du maiatzaren 20rako. Mota guzietako barazkien ekoizpen ekologikoa ezagutzeko aukera izango da, hau da, nekazaritza konbentzionalaren alternatiba naturala eta osasuntsua, eta pestizida eta substantzia kimikorik gabekoa. Era berean, lurrean landatzen denetik salmenta puntuan jarri arteko prozesuaren nondik-norakoak ezagutuko dituzte partaideek, adibide praktikoekin eta sasoiko produktuekin.

Irteeraren prezioa 5 eurokoa da (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat 4 euro). 10:00etan batuko dira Maalako parkean, eta oinez joango dira Txillarrera. Izena emateko epea maiatzaren 8an zabalduko dute. Interesatuek 943 741 626 telefonora deitu beharko dute. Antolatzaileek jakinarazi dute gehienez 25 lagunentzako lekua egongo dela.

Peru Harrira familia irteera Kiribilduz egitasmoarekin

Peru Harrira (Leitza) familia irteera antolatu du Atxutxiamaiak, Udalarekin lankidetzan, maiatzaren 20rako, Elgoibarko Izarraren Kiribilduz egitasmoaren barruan. Bertan, Euskal kulturaren transmisioaren gainean hitz egingo du Iñaki Perurenak. Era berean, herri kirolen eta baserriaren munduan murgilduko dira, jolastuz eta esperimentatuz. Goizean, bisita gidatua egingo dute, eta ondoren, Leitza bazkalduko dute. 9:30ean irtingo dira King-Kong-etik, eta 18:00ak alderako itzuliko dira. Norberak bere bazkaria eta merienda eramanez beharko ditu, eta arropa erosoak janztea gomendatu dute arduradunek. Irteeraren prezioa 10 eurokoa da (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat 9 euro eta 2 urtetik beherakoentzako, doan). Informazio gehiagorako 943 741 626 (Jon) telefonora deitu behar da.

Oin Alai ekimeneko boluntarioak saritu ditu Elgoibarko Udalak



Oin Alai umeak eskolara oinez joatea sustatzeko ekimenari bultzada eman eta boluntarioek egiten duten lana eskertzeko, Elgoibarko Udalak bost euroko 180 erosketa txartel banatu dizkie egitasmoan parte hartzen duten boluntarioei. Boluntario bakoitzak bost euroko hamar txartel jaso ditu, hortaz, 50 euroko erosketa bono bana eskuratu dute, Txankakua eta Barren Azoka elkarteetako saltokietan gastatzeko. Herri Eskolako eta Ikastolako gurasoen elkarteek, irakasleek eta Elgoibarko Udalak osatzen dute Oin Alairen mahaia.

Pintxo lehiaketa egingo dute asteburuan Mendaron

Mendaroko ostalaritza sustatzeko, pintxo lehiaketa antolatu du Udalak astebururako. Hamar tabernak hartuko dute parte, eta pintxoak euro batean salduko dituzte: Aitz-beltz, Arrats, Chow, Lagun Betikoak, Luzaide, Menditxo, Ormola, Toki-Alai, Txirristaka eta Uztargi. Taberna bakoitzak pintxo bana prestatuko du, eta euro batean salduko dute. Zapatu eta domekan, 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 21:00etara dastatu ahal izango dira. Zapatua girotzeko txaranga bat kontratatu du Udalak. Bi sari banatuko dituzte: pintxo onenaren saria eta epaimahai herrikoien saria. Bigarren horretan pintxo dastatzen duen edonork hartu dezake parte. Udalak papertxoak utziko



ditu tabernetan, eta herritarrek pintxoaren balorazioa egin beharko dute. Parte hartzen duten guztien artean 50 euroko bi sari banatuko dira, herritarrek emandako botuekin irabazi duen pintxoaren tabernan gastatzeko.

Pertsonen zaintzari buruzko hitzaldia eskainiko du Mayte Sanchok eguenean

Pertsonak zaintzen dituen gizarte batetik etorkizuna eraikitzen izenburupean hitzaldia eskainiko du Mayte Sanchok, Matia Fundazioa Institutu Gerontologikoko zuzendari ikertzaileak. Udaleko Gizarte Ongizate Sailak antolatu du hitzaldia, eta eguenean izango da, hilaren 11n, Musika Eskolan, 19:00etan. Saio irekia izango da, eta zainketarako estrategiaren esparruan, zainketa eta mendekotasunari buruz hausnartzeko saioa izango da. Gizartea zahartzen ari da eta Mayte Sanchok gizarte egoera berri honetara egokitzeko lagungarri izan daitezkeen arrasto eta tresnak azalduko ditu, etorkizunean irekitzen diren lan-aukera eta gizarte-aukeren ikuspuntutik.

Mayte Sancho psikologian lizentziatua da Madrilgo Unibertsitate Kompletentsean, eta gerontologia sozialeko masterra egin zuen ondoren, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Ibilbide luzea egin du bere lanbidean. Besteak beste, IMSERSOren Gizarte Segurantzako Kudeaketa Kidegoan aritu izan da, eta Sofia Erreginaren Fundazioak sustatutako Alzheimerren Zentroa diseinatu zuen lantalde teknikoan ere hartu zuen parte. Gaur egun, Matia Institutu Gerontologikoko zuzendari zientifikoa da.





Erabakitzeke eskubidea erabiltzera deitu du Gure Esku Dagok iganderako

Herri galdeketa antolatu du Gure Esku Dago mugimenduak iganderako, maiatzaren 7rako, eta parte hartzera deitu ditu herritarrak. Debabarrenean 46.500 herritar daude botoa ematera deituta. Elgoibarren, hiru lekutan eman ahal izango da botoa –Maalan, Kalegoen plazan eta Kultur Etxean–, 9:00etatik 20:00etara. Herri galdeketeri lotutako argibideez gain eta iganderako Elgoibarko batzordeak antolatu duen ospakizun egitarauaz gain, joan zen egunean Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakari izandakoak, Garbiñe Biurrun epaileak eta Mario Zubiaga EHUko Zuzenbide irakasleak Eibarren erabakitzeke eskubidearen inguruan esandakoak ere bildu ditugu lau orrialde hauetan.

- AINARA ARGOTIA -



Nork bozka dezake?

Bi baldintza bete behar dira: 16 urtez gora izatea eta Elgoibarren erroldatuta egotea.



Zer agiri aurkeztu behar da?

Agiri hauetako bat aurkeztu behar da:

- ◆ NAN Nortasun Agiri Nazionala
- ◆ Pasaportea
- ◆ Gidabaimena
- ◆ EHNA Euskal Herriko Nortasun Agiria + errolda agiria
- ◆ Bizileku txartela

*Agiriak iraungita izanez gero, edo helbiderik ez badakarte, errolda agiria erakutsi behar da.



Noiz eta non bozka daiteke?

Maiatzaren 7an, 9:00etatik 20:00etara Kalegoen plazan, Kultur Etxean edo Maalan.



Zeintzuk dira galderak?

1. *Nahi al duzu gaur egungo estatus politikoa aldatzea?*
2. *Nahi al duzu euskal estatu independentea?*

Maiatzak 7ko egitaraua

maiatzak **7** DEBABARRENEAN erabakiko dugu!



- ◆ **09:00** Udal Txistulari Taldea
- ◆ **10:45** Meabe eta Ziarda bertsolariak
- ◆ **11:00** Kalejira Baltzola anaiekin eta pala txapelketa Kalegoen plazan.
- ◆ **11:30** Haurrentzako denborapasak Kalegoen plazan
- ◆ **12:30** Niala Magoa
- ◆ **13:30** Kale kantariak
- ◆ **16:30** Pala txapelketako finala, plazan
- ◆ **17:00** MausitxaTxarangaren kalejira
- ◆ **18:00** Musika ekitaldia Maalan: Jon Gurrutxaga, A2an, Amorante, Xabi eta Amaia, eta Oier Gurrutxagarekin.

Pintxo potea ere izango da eguerdian. Tanttaka, Jai alai, Iturri, Gabi, Mahats, Ibai-ondo eta Ametsa tabernek parteko hartu dute.



Maiatzaren 7ko herri galdeketari begira, 'Herri galdeketak eta erabakitze eskubidea' izeneko mahai ingurua antolatu zuen Gure Esku Dagok joan zen astean Eibarren, Agirre Lehendakaria Centerrekin elkarlanean. Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohia (1998-2005), Garbiñe Biurrun epailea eta Mario Zubiaga EHUKo Zuzenbide irakaslea gonbidatu zituzten eta Jon Telleria kazetariak egin zituen moderatzaile lanak. Igandean, 300.000 biztanle daude botoa ematera deituta Euskal Herrian; 46.500 inguru Debabarrenean.



Juan Jose Ibarretxe, Jaurlaritzako lehendakari ohia

"Ez galdetzea demokrata izatea da, eta galdetzea, zatiketa sustatzen ibiltzea? Nola ba!"

Kultura gabe herri honek ez du etorkizunik" eta "bizitzan ez dago nork bere etorkizuna erabakitzea baino gauza ederragorik". Bi printzipio horien baitan josi zuen Juan Jose Ibarretxek erabakitze eskubidearen aldeko diskurtsoa, egunean. Globalizazioaren aroan nork bere identitatea izatea ezinbestekoa dela uste du berak, eta gogor egiten du mundu globalizatuan besteengandik bereizi nahi izatea zentzugabea irizten diotenen kontra. Datuak baliatzen ditu "gezur handia" uste duena eraisteko: "Mundu globalizatu honetan gero eta jokalarit gutxiago egon behar dela esaten ari zaizkigu, baina hori gezurra da. 1945. urtean, esate baterako, 51 kide zituen Nazio Batuen Erakundeak, eta azkeneko eroldaren arabera, 193 dira gaur". Globalizazioak, aberasgarri izango bada, poliedro itxura izan behar duela uste du. "Bat eginda egon behar dugu, baina nork bere identitatea zaintzen duela. Gaizki ulertutako globalizazioan, gaur egungoan, globalizazioa esfera bat da; puntu guztiak dira berdinak, puntu guztiak distantziakideak dira, zentrotik haietarako distantziak berdinak dira beti. Hor dago ezberdintasuna".

Gizarteak daukan bateratzeko elementurik demokratikoena erabakitze eskubidea da, Ibarretxeren esanetan. "Ez galdetzea demokrata izatea da, eta galdetzea, zatiketa sustatzen ibiltzea? Nola ba! Zer da hau, mundu aldrebezkoa? Baina, jakina, ari ba-zaizkigu hori egunero esaten, ari bagara egunero era horretako pilula bat irensten, azkenerako sinistu egiten dugu. Erabakitze eskubidea zer da, abertzaleen proiektua independentzia eraiki ahal izateko? Ez, ez da hori. Eskozian, adibidez, Erresuma Batuan jarraitzea erabaki zuten".

Gogoratu zuen erabakitze eskubidea baliatuta, erabat modu demokratikoan, herri burujabe asko jaio direla XX. mendean: Norvegia, Suedia, Islandia, Kroazia, Estonia, Letonia, Lituania... eta argi du aktore berri gehiago agertuko direla munduko plazan, tartean Katalunia eta Euskal Herria.

Ez dauka zalantzarik: erabakitze eskubidea printzipio demokratikoa da, eta beti ez du orain eta hemen ematen ari den besteko zeresana eman. 2016ko martxoan, esaterako, AEBetako kongresuan autodeterminazio eskean ari diren hiru herriren kasuak



aztertu zirela gogoratu du, tartean Kataluniarena, eta txostenaren egileak, Paul Williamsek, argi jaso zuela Hagako Nazioarteko Auzitegiak bidea ematen duela Katalunia independentea onartzeko. "Europako Batasuneko estatuek ere betebeharrak hori badute, azkeneko 20 urtean 36 independentzia eskari onartu dituztelako", gogoratu zuen. Ibarretxek garbi du Espainia, adibidez, ez dagoela bidea errazteko prest, baina gaia nazioartean kokatzea garrantzitsua dela uste du. Katalunia edo Euskal Herria joan sartu diren erabakitzeko eskubideak hautsak harrotu dituela esan du, baina printzipio demokratiko berak ez duela horrenbesteko tiribirarik sortu esate baterako oraintsu Erresuma Batuk Europako Batasunetik irteera erabaki duenean (Brexit afera). Zeinek zeini eskatzen dion horretan dago diferentzia. Horren harira, Eskozian 2014an egin zuten independentzia erreferenduma ekarri zuen gogora, zehatzago esateko erreferendum haren harira Mariano Raxoi Espainiako presidentearen eta David Cameron

Erresuma Batuko lehen ministroaren artean izandako eztabaida publikoa. "Cameronen arduragabekeria izugarria da. Europako proiektua ari da auzitan jartzten", esan zuen Raxoik, eta egun beren erantzun zion Cameron: "Bai, alde bat dago. Ni presidente demokratikoa naiz, herrialde demokratiko batekoa".

Charles Taylorren hitzak baliatu zituen Ibarretxek esateko forma politiko bat eman aurretik ere herria esistitzen dela, erakunde politiko bat edo beste sortu aurretik ere, herria egon badagoela, esistitzen dela, eta horregatik, herri horrek aukera izan behar duela, hala nahi izanez gero, gaurko eredu edo marko politikoa aldatzeko eta beste bat hartzeko.

Eta horretarako, igandeko herri galdeketa beste pauso bat dela uste du, eta horrenbestez, parte hartzera deitu du. "Gizarte zibilak, alderdi politikoek eta erakundeek elkarrekin egin behar dugu bidea", dio. Bi aukera ikusten ditu Ibarretxek. "Voice or brexit. Edo ematen didazu hitza, edo bestela, banoa".



Mario Zubiaga, Zuzenbide irakaslea EHU

"Gure ardura erabakitzeko eskubidea erabiltzea da, bestela ez delako sekula legean jasoko"

Burujabetza ulertzeko bi modu ikusten ditu Mario Zubiagak: uler daiteke Donald Trump AEBetako presidenteari ulertzen duen moduan, hesiak eta harresiak eraikiz eta bertakoa ez dena kanporatzen, edo uler daiteke Eskozian, Katalunian edo Euskal Herrian ulertzen ari garen moduan. Argi du hemen eta orain egiten ari garena oso dela berezia. "Eskubide berri bat sortzen ari gara. Herri galdeketa hauek ahalbidetuko dute urte gutxi barru, munduan egiten diren Konstituzio guztietan, moderno eta berritzaileenetan bai behinik behin, eskubide berri bat jasotzea: erabakitzeko eskubidea". Baina, eskubide berri hori Konstituzioetan jasoa izan dadin, garbi du lehenengo erabili egin behar dela. "Gure ardura erabiltzea da, bestela ez delako sekula legean jasoko. Manifestatzeko eskubidea ere ez zegoen jasota, manifestatzen hasi arte. Espainia demokratizatzen ari gara Euskal Herria eta Katalunia, Espainiak bere kasa horretarako kapazidaderik ere ez daukalako".

Erabakitzeko eskubidea autodeterminazio eskubidearen ulermen modernoena/demokratikoena dela dio Zubiagak, XXI. mendean sortu diren herrien eskaera politiko demokratikoei erantzuteko sortua, eta behar-beharrezkoa ikusten du, nazioartean autodeterminazio eskubidea zehazteko eta garatzeko dauden printzipioak "oso mugatuak" direlako orokorrean. Nazioarteko doktrina juridikoan, deskolonizazio prozesuekin lotuta agertu da autodeterminazio eskubidea historikoki. Autodeterminatzen zen lurraldea menperatutako herri bat izan ohi zen, zapaldua eta inongo eskubiderik gabea, eta lurralde horren eta metropoliaren artean ur gazia egon ohi zen; itsasoak banatzen zituen, alegia. Baina ikusi

da badaudela kolonia izan ez arren subiranotasuna aldarrikatzen duten zenbait herri eta komunitate politiko. Euskal Herria izan daiteke bat. "Batzuk defendituko dute, oso modu zilegian gainera, kolonizatuta gaudela, baina nekez lortuko dugu nazioartean Euskal Herria koloniatzat har dezaten. Euskal Herriak, neurri batean, badu autogobernu bat, herria erakundetua daukagu hemen eta geuk aukeratzen ditugu gure ordezkari politikoak. Autogobernu horren garapen normalizatu bezala ulertu behar dugu erabakitzeko eskubidea beraz, oso logikoa delako herritarrok nahi izatea erabakitzea besteekiko zer nolako harremana nahi dugun, inoren agindurik jarraitu gabe". Ibarretxekin bat egin zuen puntu horretan: "Voice or brexit. Ikusten duzunean adosten dituzula eskumen batzuk beste aldearekin, baina husten dituztela eskumen horiek eta urratzen dizkizutela, gainera, oinarritzko eskubideak, normala da 'ni banoa' esatea. Beste aldean nor dagoen da kontua, ez baitago beti Ingalaterra. Guri tokatu zaiguna tokatzen denean, zaildu egiten da kontua". Hala ere, bada kontu bat autodeterminazio eskubidea eta erabakitzeko eskubidea bereizten dituen, bere esanetan: hemen, erabakia hartzea aldebakarrekia da, ez dago inoren aitopenen menpe. "Tranpa egiten digute, gainera. Esaten digute aldebakarrez erabaki nahi dugula, baina ni ez naiz aldebakarrez ari. Kontua da beste aldeko inor ez dela esertzen nirekin. Gu ari gatzazkiena esaten da gure etorkizuna geuk erabaki nahi dugula eta adostu nahi dugula eurekin erabaki hori gauzatzeko modu arrazional bat, baina beste aldean ez badago inor prest gurekin esertzeko...".

Gure Esku Dago mugimenduaz ere aritu zen Zubiaga. "Gau-



zak egiteko modu berri bat erakutsi digu: behetik gora eta elkar-lanean". Herritarrek erakundeei aurrea hartuta dabilzala esan zuen, eta hala izan behar duela batzuetan, baina ezinbesteko ikusten duela momentu puntual batzuetan erakundeek gidaritza hartzea, "herritarrek egindakoa erakundeetan finkatzeko". "Oztopoak gainditzen erakundeen lanetan ari gara herritarrok eta hori ere bada garaiko filosofiaren ezaugarri bat. Ez da kasualitatea gure bi gai potoloetan, gatazkarenean eta burujabetzarenean,

bietan herritarrek ibiltzea erakundeei erakusten zeintzuk diren eman beharreko pausoak. Ibarretzek oso ondo daki hori". Horregatik oso garrantzitsua ikusten du domekan botoa ematea, erabakitzeko eskubidea erabiltzea. "Zergatik den garrantzitsua parte hartzea? Bada, dagoeneko milaka lagun daudelako botoa emanda, eta maiatzean beste milaka izango direlako eta hor kapital bat pilotzen ari delako. Galdeketa hauen funtzioa borondateak pilotzen joatea da. Olatuak ez dira hemen amaitzen".



Garbiñe Biurrun, epailea

"Herri hau hitz egiten ari da, eta ahotsa zabaltzen doan heinean, eragin egingo dugu"

Zertarako nahi duzu erabaki?. Erantzuna argi du Garbiñe Biurrunek: pertsona osoa izateko. "Gizaki askeak eta burujabeak izan behar dugu, pertsona izateko. Erabaki egin behar dugu, jaberik gabe bizitzeko. Izango ditugu erakundeak eta izango ditugu arauak, baina jaberik ez daukagu zergatik onartu behar, ez bizitza pribatuan eta ezta publikoan ere.

Aro moderno honetan arlo pribatua "sakralizatzen" ari garela uste du, eta garrantzitsua irizten dio arlo pribatu horri, baina iruditzen zaio arlo publikoa "abandonatu" egin dugula, "beste batzuen esku" utzi dugula. "Beste horiek, gure hobebeharrez ari direla uste dugun edo esaten diguten horiek, %99,9 erabakitzen dute, baina kontuz: inork ez baitaki guk baino hobeto zer behar dugun eta zer nahi dugun. Despotismo moderno, demokratiko, baten aurrean gaude, eta erabakitzeko eskubidea despotismo demokratiko hori amaitzeko tresna ezinbestekoa da". Hala, espazio publikoa berreskuratzeko lan egitera deitu du, nahiz onartu lan "deserosoa" dela sarri, denbora kentzen duena eta dedikazioa eskatzen duena, baina, aldi berean, ezinbestekoa, zerbait lortuko bada.

Benjamin Constant filosofoak 1919. urtean esandako berbak irakurri zituen. "Gerta dakigukeen gauzarik onena herritarra izatea da. Herritarra ez da esklabo, ez da basailua; libre da. Eta libre izateak esan nahi du plaza publikoan parte hartu behar duela gainerako herritarrekin batera, herritarrek berak egiten duelako bere bizitza, beste norbaitek barik". Biurrunen ustez, zorientasuna oso lotua dago erabaki publikoetan parte hartzearekin, erabakietan parte hartzearekin. Eta espazio publikoa berreskuratzeko ahalgin horretan, "berebiziko garrantzia" dauka erabakitzeko eskubideak. "Euskal Herriaren etorkizunaz erabaki behar dugu. Horrek ere gure erabakia izan behar du. Sikiera behin jaso zen hori lege batean, Ibarretxe Planean, Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa Eraberritzeko Proposamenean. Ni konbentzita nago hura atzera bota ziotela hitzurrean esaten zuenagatik". Lau esaldi irakurri zituen: *Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea dauka / Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko*

eskubidea erabiltzea, egun eremu juridiko politiko ezberdinetan giltzatuta dauden herritarrek, gizonezko zein emakume, beren etorkizuna erabakitzeko kontsultatuak izateko duten eskubidea errespetatuz gauzatzen da / geure borondate demokratikoa erabiliz / itun politiko hau Espainiako Estatuarekiko harremanerako eredu berri batean gauzatzen da, elkartasun askean oinarrituta "Erabakitzeko eskubidea, kontsulta, etorkizuna, borondate eta libre. Hitz horiek ezin izan zituzten jasan, eta horregatik itzuli zen lehendakaria [Juan Jose Ibarretxe] Madrildik, duintasun osoz, baina esku hutsik". Biurrunen ustez, Espainiak ezin du jasan Kataluniak eta Euskal Herriak eztabaidan jarri izana erabakitzeko eskubidearen gaia, nagusiki bere printzipio nagusien kontra doalako: estatuak ukaezinak dira, legeak ukaezinak dira, eta estatuen batasuna ukaezina da. Bada gehiago ere, baina. "Gainera, esaten digute noizbait eztabaidatuko bagenu Euskal Herriaren etorkizunari buruz, noizbait aukera hori izango bagenu, eztabaidatzea ez litzaigukeela guri tokatuko, baizik eta Espainia osoari. Nekez ulertzen da, baina hori da behin eta berriz esaten digutena".

Nabarmendu du ariketa demokratiko hori oztopatzeko legea baliatzen dutela, legea dela aurkitu duten "tresna eraginkorrena" eskubide demokratiko baten kontra egiteko, baina horren inguruan galdera egin du: Zertarako da legea?. "Legea gizakion obra da, eta funtzio bat du: elkarbizitza bermatzea, gatazkak konpontzea eta gerta daitezkeen arazoak saihestea".

Garbi du igandea egun erabakigarria izango dela Debabarrenean (ere). Galdeketa izaera loteslea izan ez arren, parte hartzea oso garrantzitsua dela dio, besteak beste burujabe izaten lortzen delako burujabetza; "eskubideak egikaritzuz" alegia. Gainera, iruditzen zaio galdeketa hauek eragin politikoa ere izango dutela. "Herri hau hitz egiten ari da, eta ahotsa zabaltzen doan heinean, eragin ere egingo da. Baldintza dezakegu beraz erakundeen lana. Ez dadila gertatu Ibarretxeri gertatu zitzaiona. Proiektu hura apenas inork ez zuela babestu".

Maiatzaren 7an zatoz zu ere! Eman iritzia!



Herri galdeketari babesa agertu dioten elgoibartarren argazkien aukeraketa bat da hau. Facebook eta twitter sareetan dituzue gehiago.



Galiziar jaiak ospatuko dituzte asteburuan, Aita Agirre plazan

Gaur hasi eta domekara bitartean, Galiziar jaiak ospatuko dituzte Aita Agirre plazan, Galiza Etxeak antolatuta. Aurten Carlos Casares Mouriño (1941-2002) idazle galiziarra omenduko dute jaietan, galiziar kulturari egin zion ekarpenagatik. Galiziarrez idatzi zituen hainbat liburu, editore lanetan ere aritu zen eta *Grial* edo *La voz de Galicia* egunkarietan ere kolaboratzaile lanak egin zituen. Egitarau guztia agendan irakur daiteke.



'Dantzara barra-barra' ekitaldia bihar, Kalegoen plazan

Nazioarteko Dantza Egunaren harira, Biraka dantza taldeak *Dantzara barra-barra* ikuskizuna antolatu du biharko. Debabarreneko 220 bat dantzarik hartuko dute parte, eta horietatik 130 bat izango dira elgoibartarrak. Dantza Eguneko mezu instituzionala irakurriko dute lehenengo, eta ondoren, barran egiten dituzten hainbat ariketa egingo dituzte. Bukatzeko, dantza alai bat egingo dute, eta amaieran serpentina txuri-gorriak botako dituzte, C.D. Elgoibarren mendeurrena dela-eta, klubari keinua egiteko. 12:30ean hasiko da ekitaldia.

Josu Mujikak koordinatu du 'Eibar 1937. 80 urte' hitzaldi dramatizatua



Eibarko bonbardaketaren 80. urteurrena gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu zituzten Eibarren joan zen astebururako; tartean, 'Eibar 1937. 80 urte' hitzaldi dramatizatua. Josu Mugica elgoibartarra arduratu da ikuskizunaren koordinazio artistikoaz eta Nerea Arriola biolin jole mendaroarrak ere parte hartu zuen. Ekitaldian ehun bat lagun inguru bildu ziren, eta 36ko Gerran Eibarrek pairatu zituen gertakari adierazgarrienak antzeztu zituzten.




2012ko maiatzaren 7an hil zen.

V. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

**Gure ondotik joan zinela
bost urte pasa zaizkigu.
Zuk utzitako hutsuneakin
bihotza minduta dugu.
Zure irribarre eta alaitasunaz
gogoan bizi gara gu.
Zeruko izarrik argitsuena
Itziar, maite zaitugu.**

Familiakoak



'I Puritani' opera eskainiko dute gaur diferituan, Herriko Antzokian



Elgoibarko Udalak antolatuta, *I Puritani* opera ikusi eta entzun ahal izango da gaur Herriko Antzokian, aurrez grabatutako formatuan. Opera hau 1835ean estreinatu zuten Parisen. Bellini konpositorearen azken obra izan zen. 1650. urtean girotuta dago obra, eta Elvira eta Arturoren arteko maitasun istorioa kontatzen du, Eskoziako Gerra Zibilean. Hiru akto dituen opera da. 20:30ean hasiko da ikuskizuna. Sarrerak lehiatilan bertan erosteko aukera egongo da.

Txiki Eguna abuztuaren 25ean mantentzeko sinadura bilketa hasi dute

Elgoibarko Udalak aurtengo Txiki Eguna abuztuaren 28an ospatzea erabaki du, hilaren 25a ostirala delako, eta bestela Gazteen Eguna irailaren 1era atzeratu beharko litzatekeelako. Erabaki hori ez da herritar denen gustukoa izan, eta herritar talde batek sinadura bilketa hasi du *Change.org* plataformaren bitartez, Txiki Eguna hilaren 25ean mantentzeko. Sustatzaileen arabera, Txiki Eguna beti ospatu izan da abuztuaren 25ean, asteburua jausten denean izan ezik. Aurten ostirala izanik, tradizioari eutsi behar zaiola uste dute. "Txiki Eguna beti 25ean izan da, eta horrela izaten jarraitzea nahiko genuke, gazteen eguna edozein egun izan daitekeelakoan. Edo ostiralak bakarrik dira gazteen eguna?", diote. Dagoeneko 267 sinadura bildu dituzte. Interesatuek www.change.org webgunean sinatu dezakete.

Elgoibarko dantzariak Lezon lehiatu dira

Joan zen zapatuan jokatu zuten Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako azken jardunaldia, Lezon, eta beste hainbat herritako dantzarekin batera, Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako bost dantzarik hartu zuten parte: Jone Gil, Oihane Agirrebeña, Irati Marcos, Nahia Urbiola eta Irune Arriola. Arduradunen esanetan, maila ona eman zuten: "Urte osoan lan gogorra egiten ari dira, eta euren formakuntzan hobetzen".



2012ko maiatzaren 7an hil zen.

V. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

*Nola agurtu gure laguna
hamar lerro eskaxetan
ezin sinistu, ezin ulertu
hor gabiltza burruketan
emazte, ama, alaba ona
neska alai benetan
zure taupadak entzuten dira
koadrilako bihotzetan
beti aurkituko dugu elkar
Anbotoko zelaietan.*

Kuadrillako lagunak





C.D. Elgoibarren ehun urteko historia, argazkitan izoztua

Gaur, maiatzak 5, inauguratuko dute C.D. Elgoibarren mendeurrenaren argazki erakusketa, 20:00etan. Guztira, 200 argazki eta 65 dokumentu, egunkari-zatiak gehienak, batu dituzte Kultur Etxeko erakusketa gelan. Maiatzaren 28ra bitartean egongo dira ikusgai, astelehenetik barixakura (18:30-20:30) eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara. Bisitariak C.D. Elgoibarren historiako hainbat une esanguratsu eta bitxikeria ezagutzeko aukera izango dute, eta baita ekarpenak egiteko aukera ere. Erakusketaren antolatzaileek jakinarazi dutenez, herritarrek emandako argazkiekin osatu dute erakusketaren zati handi bat eta argazki gehiago ere eskuzabalik hartuko lituzkete, mendeurrenaren harira kirol-taldearen historiari buruzko liburua idazten ari baita Koldo Lizarralde.

Omenaldia eta bazkaria

C.D. Elgoibarren mendeurrenaren harira prestatu dituzten ekintzekin jarraituz, Lehen Mailan jokatzera iritsi diren jokalariek (elgoibartarrak nahiz C.D. Elgoibartik pasatakoak) eta atletismoan nabarmendu zirenak omenduko dituzte zapatu honetan, maiatzaren 6an. C.D. Elgoibar eta Real Sociedad taldeetako beteren arteko partidarekin hasiko dira ekitaldiak, Mintxetan, 11:30ean. Ordu-erdiko bi zati izango ditu norgehiagokak, eta atsedenaldian omenduko dituzte Lehen Mailan jokatzera iritsi diren jokalariek eta Espainiako Txapelketetan urrezko dominak lortu zituzten atletak. Klubak jakinarazi duenez, omenduen arteko zazpi lagunek baieztatu diete Mintxetan izango direla. Omendutakoen senideak izango dira beste 22 lagun. Beteren arteko partidaren ostean, C.D. Elgoibarko jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritza taldeetako kide ohien, bazkideen eta zaletuentzako bazkari herrikoa egingo dute, 15:00etan, Maalako parkean. 200 lagun inguru batzea espero dute.

Eibar futbol taldeko presidentek kirol egunkari bati eginiko adierazpenek haserrea eragin dute C.D. Elgoibarren



Eibar futbol taldeak C.D. Elgoibar omendu zuen, mendeurrenaren harira.

S.D. Eibarreko presidente Amaia Gorostizak *Mundo Deportivo* kirol aldizkariari apirilaren 20an eskainitako elkarrizketa batean C.D. Elgoibari buruz eginiko aipu batek ezinegona eta harridura eragin dute C.D. Elgoibarren. Klubarekiko errespetu falta bezala ikusten dituzte adierazpenak eta eskatu diote Gorostizari publikoki barkamena eskatzeko.

Eibar taldea Realarekin negoziatzen ari den hitzarmen berriari buruz ari zela, Eibar taldearen estatusa errespetzea nahi dutela zioen Gorostizak *Mundo Deportivo* argitaratutako elkarrizketan, eta ez zitzatela har "Elgoibar edo erregionaleko talde bat" izango bailira moduan. Antton Iranzo presidentek azalpenak eskatu zizkion Gorostizari telefonoz, eta barkamena eskatu zion honek Iranzori, bere berbak lekuz kanpo aterata zeudela argudiatuz. C.D. Elgoibarrek bi gauza eskatu zizkion Eibarko presidenteari. Batek, barkamena eskatuz gutun bat idaztea eta, bestetik, *Mundo Deportivo* bertan argitaratzea bere azalpenak.

Debarrenen hirugarren raida bihar, Elgoibarren

Bihar, hilaren 6an, jokatuko da Debarrenen hirugarren orientazio raida, Mor-kaiok antolatuta. Mendi bizikletan egin beharreko bi zati, trekking bat eta herri barruan jokatuko den orientazio proba bat izango ditu aurtengo probak. Horrez gain, hiru proba berezi gainditu beharko dituzte parte-hartzaileek: Lokotx biltzea eta merorian oinarritutako orientazio proba; boulder eskalada eta norabidean oinarritutako orientazio proba. Aurtengo berrikuntza nagusia, baina, familian egiteko raida izango da. Herri barruan eta inguruko baserrietatik egingo da, eta oinez edo korrika txikian egiteko modukoa izango da. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko: debarrenaraid.wordpress.com.



Sanloko hamalau jokalarari aritu dira Gipuzkoako selekzioarekin

Sanlo Eskubaloia Kirol Taldeko hamalau jokalarari aritu ziren Gipuzkoako kadete eta jubenil mailetako selekzioarekin. Mutilek Urdulizen jokatu zuten txapelketa, eta Ermuan, neskek. Bestalde, Sanlok antolatutako Udako Eskubaloia Campusean plaza batzuk libre gelditzen direla jakinarazi dute, bigarren urteko infantilen lehen txandan, hain justu ere. Uztailaren 1etik 8ra izango da Jacan. Maiatzaren 15a izango da izena emateko azken eguna. Izen-emate orria eskuratzeko bi aukera daude: Olaizaga kiroldegiko harreraren eskatuta edo <http://sanlo.net/eskubaloi-eskola/> helbidetik jaitsi, eta bete ondoren sanolatxo@gmail.com helbidera bidalita.



Emaitzak

FUTBOLA

Elgoibar 3 – Añorga 4 (Inf.)
 Elgoibar 1 – Intxurre 1 (1. erreg.)
 Elgoibar 3 – Bergara 1 (Neskak)
 Zestoa 3 – Haundi 0 (Pref.)
 Anaitasuna 1 – Elgoibar 5 (Jub.)
 Ostadar 1 – Elgoibar 11 (Kad.)
 Antzuola 0 – Elgoibar 1 (Neskak f-8)

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa
 Lagunak 22 – Euskal Jolas 8 (Kad.)
 Aloña mendi 19 – Lagunak 22 (Jub.)
 Lagunak 22 – Euskal Jolas 10 (Jub.)
 Euskadiko Udaberri Saria
 Elorrio 22 – Lagunak 17 (Kad.)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 4 – Gala Gar 8 (Nazional B)

ESKUBALOIA

Pagoaga Elg. 37 – Jauja G.E. 8 (Kad. nesk.)
 Tecnomeca Elg. 25 – Leizaran 26 (Kad. mut.)
 ANTT Softlan 27 – Urrietako 23 (Sen. mut.)
 Egia Jiggers 26 – Pneumax 16 (Jub. mut.)
 C.D.B Leizaran 14 – Cometel Elg. 32 (Jub. nsk.)
 Amenabar Zatz 26 – Tecnifuelle Elg. 21 (Sen. mt.)

Agenda

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 9
 12:30 Lanbroa – Idiazabal (1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 8
 10:30 Elgoibar – San Ignacio (Neskak f-8)
 12:30 Elgoibar – S. Tomas Lizeoa (Jub.)
 16:30 Haundi – Touring (Pref.)
 Domekia, 9
 16:30 Elgoibar – Añorga (Kad.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 8
 16:00 Tecnifuelle Elg. – Bergara K.E. (Sen.mt.)
 17:30 Tecnomeca Elg. – Aloña Mendi (Kd.mt.)
 19:00 Cometel Elg. – Aloña Mendi (Jub.nesk.)
 Domekia, 9
 12:30 Pneumax Elg. – Amenabar Zatz (Jb.mt.)

ESKU PILOTA

Zapatua, 8
 12:00 Lagunak – Huarte (Kad.)

LANA.....
Eskaerak

Neska gaztea etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia.
☎ 688 712 075

Neska euskalduna portalak eta elkar-teak garbitzeko prest.
☎ 617 571 210

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gavez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ 632 733 573

Menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Formakuntza eta esperientzia ditut.
☎ 602 180 306

Adinekoak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest nago. Orduka edo interna moduan.
☎ 602 193 095

Neska gaztea haurrak zaintzeko eta etxeko lanetarako prest. Esperientzia daukat. Gizarte Hezkuntza titulua eta EGA. ☎ 688 639 371

Nagusiak zaintzeko prest nago, egun osoz edo orduka. Garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 632 564 679

Adinekoak zaintzeko prest nago, egun osoz edo orduka.
☎ 634 209 087

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 631 613 245

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Asteburuetan edo interna moduan ere bai. Esperientzia daukat.
☎ 631 562 461

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 648 039 187

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Asteburuetan ere bai. Ordutegi malgua. ☎ 632 776 905

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 653 178 376

Adinekoak zainduko nituzke.
☎ 632 061 103

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 632 436 462

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago.
☎ 642 424 173

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko, banaketa lanak egiteko, sukalde laguntzaile lanetarako... Edozein lan egingo nuke.
☎ 650 029 176

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 951 901

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 983 250

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat.
☎ 635 005 536

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia eta erreferentzia onak ditut.
☎ 688 712 075

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.
☎ 632 850 715

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.
☎ 612 493 242

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.
☎ 612 493 242

Eskaintzak

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: cvdenda@hotmail.com

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. ☎ 688 802 329

Elgoibarren lan egiten dugun bi euskaldun arduratsu, alokairuan bizitzeko pisu bila gabilta. ☎ 618 395 232

Mendaron, Sorluzen edo Elgoibarren pisua alokatuko nuke.
☎ 626 292 587

LOKALAK.....

50 metro koadroko lokala alokatu edo saltzen dut, Basariten.
☎ 669 245 520

Taberna alokatzen da Elgoibar erdigunean. Terraza handia dauka.
☎ 656 724 401

Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean. ☎ 609 951 243

KINTOAK.....

1949koen bazkaria, ekainaren 3an. Argazkia 12:30ean parrokian. Segidan luntxa Ibai-Ondon, bazkaria Sigman 14:30ean. 50€ sartu, maiatzaren 31rako: ES0421004168 7821 0032 4544 (Caixa Bank).

1947koen bazkaria ekainaren 17an. Argazkia 13:30ean Bolatokian. Iluntxa Ibai-Ondon, bazkaria Sigman 14:45ean. 60€ sartu, maiatzaren 31rako: 3035 0007 24 0071063126 (Laboral Kutxa).
☎ 647 647 270 (Camilo)
☎ 616 048 946 (Pedro)

1962koen bazkaria maiatzaren 27an. 12:30 Kalegoen plazan; 13:00 luntxa Tantakan, 14:30ean bazkaria Sigman. 45 euro sartu Bankoako kontu honetan maiatzaren 20a aurretik: ES09 0138 0020 1100 1061 1458

53ko kintoen bazkaria, apirilaren 29an. 12:30ean meza, Maalan hildako kintoen omenez. 14:30ean bazkaria Ibai Ondo jatetxean. Interesatuak apirilaren 23rako eman behar dute izena Castrillejo estankoen.
☎ 686 886 963 (Carlos)



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Negocios
Euzko Enpleu Administrazioaren Lanakide Konturak



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Hiru peora daude gure komunitatean, eta garbiketa enpresa bat kontratatu nahi dugu, hiru peorak eta leku komunak garbitzeko. Jakin nahiko nuke jabeakideon komunitatea egiten al den guk aukeratu dugun enpresa horrek azpikontrataturako zerbitzu enpresak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zorren erantzule.

Kanpo enpresa baten, enpresari baten edo profesional baten zerbitzuak kontratatzen dituen komunitatea ez da sor daitezkeen lan istripuen erantzule egiten, ezta horrek arriskuak sahiesteko planik izan ezta ere. Eta ez da enpresa horrek bere betebeharrak ez betetzearen kargu egingo, ezta enpresa, profesional edo enpresari horrek Gizarte Segurantzarekin izan ditzakeen arazoaren erantzule egiten ere.

Komunitateak enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu, eta enpresarekin du lotura, ez enpresa horrek lan hori egiteko hartu dituen langileekin.

AHOLKUA: Teknikoki ez dago lan azpikontrataziorik, eraikina garbitzea ez delako propio komunitatearen jarduera eta hori egingo duen enpresa kontratatzean komunitateak ez duelako irabazirik ateratzen. Komunitateak egiten duen gauza bakarra zera da: enpresa bat hartu, eraikina egoerarik onenean egon dadin.



Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Luken!** Asko maite zaitugu. Muxu handi bat Elgoibarko familiakoen partez.



Zorionak, **Hodei!** Irtsi da zure eguna! Gozatu!



Zorionak **etxeko printzesari** 9. urtebetetzean. Ondo-ondo pasatuko dugu zure eguna. Patxo handi bat etxekoaren partez.



Zorionak, **Mikel,** zure 5. urtebetetzean. Etxekoaren partez, muxu eta besarkada handi bat.



Zorionak, **printzesa,** zure 7. urtebetetzean. Gurasoen partez.



Zorionak, **txapeldun,** zure 8. urtebetetzean. Osaba-izeben partez.



Zorionak, **Nadet!** Astear-tean 9 urte! Oso ondo pasatu genuen. Muxuak familiako guztien partez.



Zorionak, **June,** gaur 3 urte egin dituzulako. Familiakoaren partez.




Gerardo eta Marisol. Bihar maiatzak 6 urrezko ezteiak ospatzen ditugu. 50 urte ezkondua, eta orduan bezala, maiteminduta.



Urrezko ezteiak ospatzeko familiarekin elkartuko gara. Zorionak!



Zorionak, **Angelita eta Juan Manuel,** maiatzaren 8an urrezko ezteiak ospatuko dituzuelako. Seme-alaba eta biloben partez. Muxu erraldoi bat.




Mila esker, **Kristina eta Jael!** Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontzan. Zoriontsuak izan! Asko maite zaituztegu.



Zorionak, **Jon,** maiatzaren 3an 6 urte egin zenituelako. Patxo handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Nora,** 3 urte bete dituzulako. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat, etxekoaren partez.



Zorionak, **Ane,** 3 urte egin dituzulako. Patxo handi bat, etxekoaren partez.



Zorionak, **familia!** Ibon, 5 urte beteko dituzulako, eta Ekaitz eta Arantza, zuen eguna izango delako. Eta zorionak zuri ere, Nahia, datorren astean jaunartzea egingo duzulako. Muxu handi bat familia guztia-
ren partez.



bisita gidatua TXILLARRE baserrira

nekazaritza ekologikoa maiatzak 20, larunbata

Itteera-ordua: 10:00etan Maalako parkean (oinez joango gara Txillarrea)
 Prezioa: 5€ (4€ Elgoibarko Izarako bazkideek)
 Izen-ematea: Elgoibarko Izarra (943 741 626)
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
 Maiatzaren 8tik aurrera (25 laguntzako tokia)

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK

Ez da soinu kalitatea bakarrik; bizi-kalitatea ere bada

5 BARIXAKUA

18:30 Argazki erakusketa. C.D. Elgoibarren mendeurrena. Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 28ra arte. Astelehenetik ostiralera 18:30-20:30 eta zapatuetan 12:00-14:00.

19:00 Hitzaldia: Maddalen Iriarte EH-Bilduko legebiltzarkidearen hitzaldia. Kultur Etxean.

Ondoren, argazkia. Gure Esku Dago ekimena babesteko. Kultur Etxe aurrean.

20:00 Elkarretaratzea. "Preso gaixoak etxera, berandu baino lehen". Elgoibarko SAREk deituta, Nafarroa plazan.

20:30 Opera: I. Puritani. Aurrez grabatutako formatoan. Herriko Antzokian.

6 ZAPATUA

10:00 Debabarreneko orientazio raida. Kalegoen plazan hasiko da. Morkaikok antolatuta.

10:00 Gure inguruko belarrak ezagutzeko irteera. King-Kongen elkartuko dira eta Aiasia aldera egingo dute irteera.

11:00 Raid familiarra. Leku Ederren. Morkaikok antolatuta.

11:30 Lehen mailan jokatu duten futbolariari omenaldia. Mintxetan.

12:00 C.D. Elgoibar eta Real Sociedad taldeetako beterranoen partida. Mintxetan.

12:30 'Dantzara barra-barra' dantza emanaldia, Kalegoen plazan. Biraka taldeak antolatuta. (Euria egiten badu, Maalako parkean).

15:00 C.D. Elgoibarkoen bazkaria, Maalako parkean.

7 DOMEKA

9:00 Herri galdeketa. Gure Esku Dagok antolatuta.

9 MARTITZENA

17:00 Komiki lantegia. LH4tik LH6rako umeentzat, Udal Liburutegian.

19:30 Hitzaldia: 'Gure osasuna eraikitzen'. Unai Arrietak eskainiko du hitzaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

11 EGUENA

18:30 Gurasoentzako formazio saioa, Kultur Etxean: "Nerabezaroan laguntzen. Elgoibarko Udalak, Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak, Ikastolako Guraso Kontseiluak eta Arreiturreko Guraso Elkarteak antolatuta.

19:00 Hitzaldia: 'Pertsonak zaintzen dituen gizarte batetik etorkizuna eraikiz'. Mayte Sanchok eskainiko du. Musika Eskolan, Ongizate Sailak antolatuta.

GALIZIAR JAIK AITA AGIRRE PLAZAN

5 BARIXAKUA

19:30 Jaien inaugurazioa. Aurten Carlos Casares omenduko dute.

Ondoren, Galiziako muskuluaren dastaketa, doan.

20:00 Los Trovadores orkestraren emanaldia.

23:00 Los Trovadores orkestraren emanaldia.

6 ZAPATUA

11:00 Galizako ohiko jakien dastatzea.

12:00 Asociación cultural banda de gaitas Maceda taldearen kalejira.

13:00 Bermut-dantzaldia.

18:30 Asociación cultural banda de gaitas Maceda eta Haritz dantza taldearen dantza ikuskizuna. Kalegoen plazan.

20:00 Galizako ohiko jakien dastatzea.

20:00 Los Trovadores orkestraren emanaldia.

23:00 Los Trovadores orkestraren emanaldia.

00:00 Queimada festa.

7 DOMEKA

11:00 Galizako ohiko jakien dastatzea.

13:30 Hildako bazkideen omezez, meza, San Bartolome Parrokiari. Asociación cultural banda de gaitas Maceda taldeak hartuko du parte.

Ondoren, kalejira eta ekitaldia azoka gunean.

14:30 Bazkaria, Galiza Etxean.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

5 Barixakua IBAÑEZ
6 Zapatua GARITAONANDIA
7 Domeka GARITAONANDIA
8 Astelehena ETXEBERRIA

9 Martitzena FERNANDEZ*
10 Eguaztena YUDEGO
11 Eguena ORUESAGASTI*
12 Barixakua BARRENETXEA

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:
BARRENETXEA (Elgoibar)
Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
San Agustín, 3 - Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel.: 943 751 384

Zinea (Herriko Antzokian)

'Mañana empieza todo'

6 zapatua:

19:00 / 22:15 VOS

7 domeka: 19:00

8 astelehena: 21:30

Maiatzak 20, zapatua
Leitzara Familia Irteera, Iñaki Perurenaren Peru Harri museora.
 Irteera ordua: 9:30ean King-kongen - Itzulera: 18:00etan Txankakuan.

Izen ematea maiatzaren 2tik 16ra bitartean
 Elgoibarko Izarran edo www.elgoibarkoizarran.eu webgunean.
 Prezioa: 10€ (baxkideak 9€) 2 urtetik beherakoak doan.
 Plaza mugatuak.

Antolatzaileak:    

IKASTOLAN, DENOK GARA GU
HHO-1eko matrikulazio aldia zabalik maiatzaren 15etik 26ra
HHO (2017an jaiotakoak) iraillean eta urrian hasteko
HH 1 (2016an jaiotakoak) iraillean hasteko



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eu
 943 744441





Ikastola ezagutzeko aurkezpen bilera maiatzaren 15ean, 18:00etan

PERTSONAK ZAINTZEN DITUEN GIZARTE BATETIK ETORKIZUNA ERAIKIZ





Hitzaldia (orderaz):
 maiatzak **11** de mayo
 a las **19:00**etan
Tokia: Musika eskola
Hizlaria: Mayte Sancho
 Directora Científica
 de la Fundación Matia
 Instituto Gerontológico



- 'Pertsonak zaintzen dituen gizarte batetik etorkizuna eraikitzen' izenburupean Mayte Sancho adituak oraingo gizartearen inguruko erreflexioa egingo du gurekin.
- Gizartea zahartzen ari da, gero eta pertsona gehiago dauzkagu gure inguruan zaintza behar dutenak. Zer datorkigu? Zaintzen ditugu gure zaintzaileak?
- Etorkizun berri honetan irekitzen zaizkigun aukerak hausnartuko ditugu.
- Zatoz maiatzaren 11n Musika Eskolara.



Julen Ansola



Julen Ansola

Irati Agirreazaldegi



Herria jendearentzat eta jendea herriarentzat. Irudian hala ikus dezakegu behintzat: Elgoibarko bista elgoibartarrentzat. Baina elgoibartarrok ere lan egin behar genuke argazkian ikusten den horrentzat.

Baina lan egiteko herriaren alde, eskuz esku gurutzatu behar genuke aldenik alde, errepidea baino herritarrok irekitako bidea albora utzi gabe.

Horretarako baditugu bi hanka eta bi esku eta gurean herri bakar bihurtu nahi genukeen hamaika bide, baina beharrezko zaizkigu zenbait eskubide.

Eskubideok norbaitek kutxa batean gordeta ditu, baina herritarren eskutan dago kutxa irekitzeko giltza, edo gutxienez kutxa baten barruan sartzeko gure hitza. Izan ere, helmugara iristeko bidean, denon eskubideak batetik bestera pausoz pauso dabilta.

Botoa kutxan sartuko duten eskuek, argazkian bezala, argi egingo diote herriaren ilunari eta ez liokete eskubiderik kendu

behar argi egiten digun hari.

Udaberrian herriari eman behar zaio bizi eta bakoitzaren ahotsa izan behar da guztion hitza.

Zu eta ni, haiek eta gu, guztiok bat izaten saiatuko gara, zubiak eraikitzen herriko punta batetik beste puntara, erabakitze eskubidea gurea izango bada.

Pausoak emateko eta aldaketarako aukera nire esku, zure esku, gure esku. Maiatzaren 7an, botoa emateko erabakia hartzea bakoitzaren esku. Beraz, noren esku dago erabakitze eskubidea? Zure esku, gure esku, herritar guztion esku.

“Bakoitzaren ahotsa izan behar da guztion hitza”

LubaNails

Zure azazkalak eskurik onenetan



www.Facebook.com/LubaNails22



634 41 41 95

Manikura azkarra

12.00€ ~~15.00€~~

Higienizazioa, limatzea, esmaltatze normala eta hidratazioa.

Manikura osoa

15.00€ ~~18.75€~~

Manikura zaindua eta higienizazioa. Kutikulen tratamendua eta haiek kentzea, limatzea eta azazkal inguruko tratamendua, esmaltatze normala eta hidratazioa.

Geldun Manikura

40.00€ ~~50.00€~~

Manikura zaindua eta higienizazioa. Kutikulen tratamendua eta haiek kentzea, limatzea eta azazkal inguruen tratamendua, geldun manikura azazkala luzatzeko aukerarekin, esmaltatze normala eta hidratazioa.

Gel azazkalak mantentzea

30.00€ ~~37.50€~~

Manikura zaindua eta higienizazioa. Kutikulen tratamendua eta haiek kentzea, limatzea eta azazkal inguruen tratamendua, gelez betetzea, esmaltatze normala eta hidratazioa.

Pedikura osoa

28.00€ ~~35.00€~~

Bainu hidratatzailea, pedikura zaindua eta higienizazioa. Kutikulen tratamendua eta haiek kentzea, limatzea eta azazkal inguruen tratamendua, esmaltatze normala eta hidratazioa.

Vinylux esmaltatzea

6.00€ ~~7.50€~~

Limatzea eta esmaltatzea Vinylux-ekin. (Denbora desafiatzen duen esmaltea!!! 7 egun arteko iraupen, distira eta kolore perfektua. Ez du formaldehido, tolueno edo parabenorik erabiltzen.)

Esmaltatze iraunkorra

5.00€ ~~6.25€~~

Manikurari edo pedikurari gehitzekoa.
(Ezin da egin azazkalen tratamendua egin gabe)

Frantsesa edo apaintzea

2.00€ ~~2.50€~~

Manikurari edo pedikurari gehitzekoa.

Etxez etxeko zerbitzua

3.00€

Etxera joateagatik gehigarri bat kobratuko da.

Hitzorduarekin egiten dugu lan:

Agurtzane Ilepaindegian*

Santa Ana Kalea 18

Elgoibar



(*ileapaindegiko ordutegitik kanpo etxean ematen dugu zerbitzua.)